

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko apirilaren 1a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-26/CCOI-0001. “Nafarroako toki-sektore publikoa, 2023ko ekitaldia” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/CCOI-0001. “Nafarroako toki-sektore publikoa, 2023ko ekitaldia” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko otsailaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Nafarroako toki-sektore publikoa, 2023ko ekitaldia” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko

Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko otsailaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

TOKIKO SEKTORE PUBLIKOA (2023)

UDAL MAPA

62 MANKOMUNITATE

22 UDAL ELKAR

345
KONTZEJU

272
UDAL

701
TOKI-ERAKUNDE

Udal-maparen arrazionaltasun falta zerbitzu eraginkor eta kalitatezkoetarako

FINANTZA-EGOERA ONA

DIRU-SARRERAK

1.194 milioi

↑%5^{eko}

Tokiko erakundeek zergetan izan duten parte-hartzearen igoeragatik

GASTUAK

1.116 miloi

↑%5^{eko}

Langileriaren gastuaren igoeragatik (43 m)

AURREZKI GARBIA

130 miloi

↑%9

ZOR BIZIA

100 milioi

↓%15

GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZAKO GERAKINA

400 milioi

↑%7

GOMENDIOAK

- Toki administrazioaren erreforma osatzea
- Barne kontrolaren arautegia onartzea
- Tokiko erakundeen kontabilitatea onartu eta kontabilitate publikoaren plan orokorrera egokitzea

AURKIBIDEA

I. SARRERA	5
II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK	5
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	7
III.1 Konklusioak	7
III.2 Gomendioak	9
IV. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA	11
IV.1 Antolaketa-egitura	11
IV.2 Toki-sektore publikoaren arrazionalizazioa	13
IV.3 Nafarroako toki-entitateei aplikatzekoa zaien araudia	13
V. 2023KO EKITALDIARI DAGOZKION FISKALIZAZIO-JARDUKETEN LABURPEN-OROTIDAZKIA	14
VI. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA	16
VI.1 Diru-sarrerak	17
VI.2 Gastuak	19
VI.3 Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren funtsak	20
VI.4 Adierazleak	21
VI.5 Nafarroako udalen arteko konparaziozko analisisa, biztanleria-tarteen araberakoa	23
VI.6 Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasuneko helburuak	24
VII. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA	25
VIII. KONTU-EMATEA ETA AURREKONTUEN ONESPENA	27
VIII.1 Kontuak emateko betebeharra betetzea	27
VIII.2. Aurrekontuaren onespena eta igorpena	28
IX. BARNE-KONTROLA ETA KONTU-HARTZE ORGANOEK JAULKITAKO ERAGOZPEN-OHARRAK	28
IX.1 Eskatutako informazioa igortzeko betebeharra betetzea	28
IX.2 Barne-kontrola	28
IX.3 Eragozpen-oharrak	30
IX.4 Diru-sarreren arloko anomalia nagusiak	31
I. ERANSKINA. TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA	32

I. SARRERA

Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko txosten hau egin da, Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betetzeko, zeinaren 350.2 artikulua ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari bidaltzea Kontuen Ganberak Nafarroako toki-entitateen esparruan egin dituen fiskalizazio- eta kontrol-jarduketan berri ematen duen laburpen-oroitidazki bat.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (TOFL, aurrerantzean) toki-entitateentzat ezartzen dituen epeak, ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (NFKA, aurrerantzean) bidaltzekoak, bai eta informazio horren trasteraren konplexutasunak ere, esplikatzen dute 2023ko ekitaldiari buruzko txostena ezin lehenago egin izana.

Txostenari erantsi zaio Lurralde Kohesiorako Departamentuak (departamentua, aurrerantzean) eginiko II. eranskina, toki-sektore publikoaren 2023ko egoera finantzarioari buruzkoa.

Lana 2025eko maiatz eta azaroan egin du auditoriako bi teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Eskerrak ematen dizkiegu Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiko (TADZN, aurrerantzean), Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko eta Nafarroako toki-entitateetako langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Txostenaren diru-zenbatekoei dagokienez, biribildu egin dira, zentimorik ager ez dadin. Aurkezten diren datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean daude kalkulaturak, eta ez, ordea, balio biribilduen gainean.

II. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan honen helburuak hauexek dira:

- Ganbera honek Nafarroako toki-entitateen esparruan 2023ko ekitaldiari buruz egin dituen fiskalizazio-jarduketak laburbiltzea.
- Ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari Nafarroako toki-entitateen 2023ko egoera finantzarioari eta antolamenduari buruz.
- Adierazle batzuk konparatzea Nafarroako populazio-tarte desberdinetako udalen artean.
- Toki-entitateek ekitaldi horretan egin duten kontratazioa aztertzea.
- Barne-kontrola aztertzea, bai eta toki-entitateen kontu-hartzaitzak diru-sarreraren arloan jakinarazitako eragozpenak eta anomaliak ere.
- Toki-sektore publikoaren kudeaketa hobetzeko gomendioak proposatzea Nafarroako Parlamentuari, Gobernuari eta toki-entitateei.

Lanaren norainokoa honako hau da:

- Toki-entitateen 2023ko ekitaldiko kontu orokorra, zeinaren osagai baitira toki-entitatearena berarena eta haren erakunde autonomoena (EEAA, aurrerantzean), osoki toki-entitatearen jabetzakoa den kapitaleko merkataritza-sozietateena, eta kasuan kasuko eranskinak.
- TADZNak kudeaturiko Toki Entitateen Erregistroko datuak, bai eta Kontratazio Publikorako Batzordearen menpeko Kontratu Erregistrotik lorturiko informazioa ere.
- Aipatu ekitaldiari buruz Ganbera honek jaulki dituen fiskalizazio-txostenak.
- Toki-entitateetako kontu-hartzaitza arloko organoek Ganberak barne-kontrolari, eragozpenei eta diru-sarreraren arloko anomaliari buruz eginiko informazio-eskaerei emandako erantzunak.

- Toki-sektore publikoaren 2023ko egoera finantzarioari buruz departamentuak eginiko txostena. Txosten hau toki-entitateen, haien erakunde autonomoen eta Iruñerriko Mankomunitatearen eta Jurrmendiko Mankomunitatearen mendeko sozietate publikoen aurrekontuetako datu bateratuetan oinarrituta prestatu da¹. Zorpetzearen azterketan bai sartu dela oso-osorik udalen eta mankomunitateen menpeko diren sozietate guztien bateratzea. Fundazio publikoen eta partzuergoen kontuak, berriz, ez dira sartuak izan inongo informazio bateratutan.

Txosten horrek ez du informazio ekonomiko-finantzarioari ez eta aurrekontuari ere jasotzen 2023ko ekitaldiko beren kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa departamentuari 2025eko apirilaren 2rako bidali ez zioten toki-entitateei buruz², zeinak baitira:

- 272 udalerrietatik 31: Abaurrepea, Allin, Añorbe, Aras, Arellano, Barbarin, Berbintzana, Cabredo, Desoio, El Busto, Eratsun, Eslaba, Espartza Zaraitzu, Ezkurra, Galoze, Genevilla, Hiriberri, Lapoblación, Lukin, Marañón, Morentin, Nabaskoze, Orontze, Orreaga, Saldias, San Martin Unx, Santsol, Urdazubi, Urzainki, Villamayor de Monjardín eta Zugarramurdi.

Udalerririk 5.505 biztanle dituzte guztira; alegia, Nafarroak 2023ko urtarrilaren 1ean zituen biztanleen ehuneko 0,82.

- 345 kontzejuetatik 94: Albiasu, Alli, Allotz, Altzorritz, Aramendia, Arandigoien, Arbeitza, Argiñao, Aritzala, Aritzaleta, Arribe-Atallu, Arruitz, Artabia, Artazkotz, Asiain, Aizpurgi, Asterain, Azantza, Aizkoa, Azkarate, Azketa, Bakedao, Baraibar, Bearin, Biotzari, Bizkarreta, Zizur Txikia, Etxague, Egozkue, Eltzaburu, Eraul, Errazkin, Erro, Etsain, Etxarri, Eultz, Gaintza, Galdio, Ganuza, Garisoain, Gazolatz, Gorrontz-Olano, Gorozin, Genbe, Ibiriku Deierri, Idotzin, Iguzkitza, Inbuluzketa, Intza, Iruñela, Irurre, Iturgoien, Izko, Izkue, Lakar, Larraintzar, Larraia, Larraiotz, Larrion, Lerate, Lizarragabengoa, Lizaso, Lorika, Meano, Mezkitz, Muetz, Muneta, Muniain, Gesalatz, Murelu Longida, Murelu Deierri, Murugarren, Nabaskoze, Oderitz, Ollobarren, Oloritz, Orokieta-Erbiti, Otsakar, Paternain, Errezu, Getze Ibargoiti, Sartze, Senosiain, Torres, Ugar, Undio, Urbiola, Ustaiz, Uztegi, Bidaurre, Zabal, Zilbeti, Zubielki, Zufía, Zurukuain.

Kontzeju horien biztanleria 10.165 pertsonakoa da. Nafarroako guztizko biztanleriaren ehuneko 1,51 egiten du, eta kontzejuetako biztanleriaren ehuneko 24.

- 84 mankomunitate eta elkarteetatik 11: Faltzes eta Miranda Arga udalerrietako Administrazio Zerbitzuen Elkartzea, Arratoz Ur Mankomunitatea, Aberin-Arellano-Morentingo Langileriaren Mankomunitatea, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatea, Liburutegi Zerbitzuen Berragu Mankomunitatea, Nafarroako Erdialdeko Kirol eta Zerbitzu Soziokulturalen Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Erriberriko Eskualdeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Euskara kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea, Orreaga Kirol Mankomunitatea eta Aralarko Elkartea.

Nahiz eta informazio hori ez dugun eskuan izan, josten dugu ezen gure lanean iritsi ditugun konklusioak ez ziratekeela nabarmenki aldatuko.

¹Iruñerriko Mankomunitatea - Iruñerriko Zerbitzuak SA.
Jurrmendiko Mankomunitatea: Servicios Técnicos Mancomunados SL –SERTECMA SL– eta Servicios de Montejurra SA.

²Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia Nafarroako toki-sektore publikoaren 2023ko egoera finantzarioari buruzko txostena egiten hasi zen eguna.

III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

III.1 KONKLUSIOAK

Toki-sektore publikoaren osaera 2023an

Toki-sektore publikoak 701 toki-entitate biltzen ditu: 272 udal, 345 kontzeju, 62 mankomunitate eta udalerrien 22 elkarte. Zerbitzuak emateko, erakunde horiek mendeko 117 erakunde dituzte guztira, eta 16 partzuergo osatzen dituzte.

Aurreko txostenetan bezala, Nafarroaren gaur egungo toki-plantaren arrazionalizazio-ezaren arazoa azpimarratu nahi dugu. Udalerrri gehienek biztanle gutxi dituzte, eta horrek mugatzen du baliabideen hornidura eta berezko eskumenak gauzatzeko administrazio-egitura egokia izateko aukera, eta horrek zailtasunak dakartza bai legezko hainbat betebeharrak betetzeko, bai zerbitzu publikoak eraginkortasunez, efizientziaz, ekonomiaz eta kalitatez emateko.

Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak tokiko maparen erreforma onetsi zuen, eskualdeen figura txertatuz, eta finantzaketa-sistema berri bat ezarri zuen. Tokiko maparen erreforma ez da garatu. Aldiz, tankeratu da, bai, finantzaketa-sistema berri bat, 2022an onetsitako hiru foru legeren bitartez arautua.

Toki-eremuaren fiskalizaziorako lanak, 2023. urteari buruzkoak

2023an, Ganbera honek finantza- eta legezkoitasun-fiskalizazioa egin zuen Iruñeko Udalaren, Fontellasko Udalaren eta Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatearen jardura ekonomiko-finantzarioari buruz.

Iruñeko Udalaren kasuan, finantza-auditoretzari buruzko iritzia aldekoa izan zen; legezkoitasuna betetzeari buruzko iritzia, berriz, aldekoa izan zen, salbuespen batekin. Fontellasko Udalari dago-kionez, finantza-auditoretzari buruzko iritzia aldekoa izan zen, hiru salbuespenekin, eta legezkoitasuna betetzeari buruzkoa, berriz, aldekoa izan zen, sei salbuespenekin. Bestalde, Irati Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean, bi alderdi horiei buruzko iritzia aurkakoa izan zen.

Halaber, berariazko fiskalizazioa egin zen Iruñeko Udalaren kontratazio-jardueraren gardentasun- eta publikotasun-betebeharren betetze-mailari buruz. Alor horri buruzko legezkoitasuna betetzeari buruzko iritzia aldekoa izan zen, salbuespen batekin.

Ganberak, halaber, langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloko legezkoitasunaren betetzea fiskalizatu zuen honako toki-entitate hauetan: Berriozarko Udalean, Tuterako sektore publiko instituzionalean eta Lizarrako, Zizur Nagusiko eta Barañaingo udalen mendeko erakunde autonomoetan. Horietan guztietan, legezkoitasuna betetzeari buruzko iritzia aldekoa izan zen, salbuespenekin.

Azkenik, bi fiskalizazio operatibo egin ziren:

- Horietako lehena 10.000 biztanletik gorako udalerrietan energia aurrezteko eta efizientziaz erabiltzeko neurrien plangintzari buruzkoa izan zen³ Fiskalizazioa eginda ondorioztatu zen, entitate batek izan ezik, beste guztiek klimaren eta energia jasangarriaren aldeko ekintza-planak prestatu zituztela. Hala ere, udal batek soilik eguneratu du bere mugikortasun jasangarriari buruzko plana, Klima Aldaketari buruzko Foru Legean ezarritakoa betetze aldera.

- Bigarren fiskalizazioak udalek eta haien mendeko erakundeek aplikatutako ordainketa-prozedurak aztertu zituen 1.001etik 2.000 biztanlera bitarteko herrietan⁴. Ondorioztatu zen aplikaturiko prozedurek segurtasun-maila nahikoa ematen dutela aztertutako 21 udalako 20tan eta haien mendeko 11 entitateetako lautan.

³Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Aranguren, Eguesibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

⁴Arbizu, Arroitz, Artaxoa, Cabanillas, Cárcar, Oltza Zendea, Doneztebe, Ezkabarte, Itza, Lakuntza, Lekunberri, Lerin, Irunberri, Mendigorria, Monteagudo, Olazti, Sartaguda, Sesma, Ultzama, Deierrri eta Villatuerta, bai eta haien sei erakunde autonomoak eta menpeko bost merkataritza-sozietateak ere.

Toki-sektore publikoaren 2023ko egoera finantzarioa

Toki-entitateen, EEAren eta menpeko sozietateen multzoak⁵ 2023an 1.194 milioiko diru-sarreak lortu zituen. Horien ehuneko 46 transferentzien bidez, eta ehuneko 44, tributuen bitartezko diru-sarreraren bidez.

Gastuak 1.116 milioikoak izan ziren: horien ehuneko 79 funtzionamendu-gastuak izan ziren, batez ere ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindakoak (ehuneko 36) eta langileriakoak (ehuneko 36).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, bai diru-sarrek bai gastuek, guztira, ehuneko bost egin zuten gora.

Gutzizko diru-sarrek izandako gorakada zor zaio diru-sarrera arruntaren gorakadari –bereziki transferentzia arruntak, 33 milioi igo baitziren toki-entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsa 30 milioi igo izanaren ondorioz– eta kostu energetikoen igoerari aurre egiteko funtsaren gorakadari (zortzi milioi). Kapitaleko diru-sarreraren atalean inbertsioak besterentzeagatiko diru-sarreraren gorakada nabarmen da (24 milioi). Aldiz, diru-sarrera finantzarioek bederatzi milioi egin zuten behera, nagusiki Iruñeko Udalak bi mailegu hitzartu zituelako aurreko ekitaldian, guztira 15 milioikoak.

Gutzizko gastuaren gorakadaren zergatia da funtzionamendu-gastuak 43 milioi igo direla.

Toki-entitateen 2023ko aurrezki garbia, funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egin ondoren, 130 milioikoa izan da, ehuneko bederatzi gehiago aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

Toki-sektore publikoaren zor bizia, kontuan harturik toki-entitateak, haien mendeko erakunde publikoak eta haiek partaidetza osoa duten sozietate publikoak, ehuneko 15 murriztu da, 2023aren amaieran 100 milioikoa izateraino. Zor biziaren batez besteko interes-tasa ehuneko 4,29koa da, eta batez besteko mugaeguneratze-epea, 8,88 urtekoa. Zorrak diru-sarrera arrunt bateratuen ehuneko 9,7 egiten du; oso urrun, alegia, arauak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik.

Bestalde, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 401 milioikoa da; alegia, aurreko urtean baino ehuneko zazpi gehiagokoa.

Biztanleria tarte desberdinetako udalen adierazle finantzario nagusiak aztertuz gero, ikus daiteke ezen, Iruñean izan ezik, udalerria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak direla diru-sarrera arruntak, funtzionamendu gastuak eta biztanle bakoitzeko aurrezki gordina.

Azken batean, toki-sektore publikoaren 2023ko egoera ekonomiko globala ona da. Bestalde, zor biziak beharantz jarraitu zuen, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak gorantz, aurreko urteetako hoberanzko joerari eutsiz.

Kontratazio publikoa

Kontratu-erregistroko datuen arabera, toki-entitateek eta haien menpeko enteei 729 kontratu esleitu zituzten, guztizko zenbatekoa 650 milioikoa zeukatenak, kontuan hartu gabe munta txikiko araubidearen bitartezko kontratazioak. Kontratazio-bolumena oso kontzentratuta dago: 52 kontraturik dagokio esleitutako bolumen osoaren ehuneko 89.

Udalek⁶ kontratuen eta zenbateko osoaren ehuneko 71 esleitu zituzten. Bestalde, sozietate publikoek kontratuen ehuneko 16 eta zenbateko osoaren ehuneko 18 esleitu zituzten.

⁵Iruñerriko Mankomunitatearen eta Jurrmendiko Mankomunitatearen mendeko sozietate publikoak.

⁶Azterlanean ez da aintzat hartu Iruñerriko Mankomunitatearen hiri-garraio publikorako kontratua, prozedura irekiaren bidez 460,89 milioitan esleitua, guztizko zenbatekoaren ehuneko 71 egiten duelako eta nabarmen aldatzen duelako aurreko ekitaldiarekiko konparazioa.

Gailentzen dira obra-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, zeinek guztizko zenbatekoaren ehuneko 50 eta 37 egiten baitute⁷, hurrenez hurren.

Gehien erabiltzen den esleipen-prozedura irekia da, kontratuen ehuneko 69 eta haien zenbatekoaren ehuneko 91 bideratzen baitu.

Kontu-ematea eta aurrekontuak

Oro har, toki-entitateek beren kontuak onetsi eta NFKari igortzen dizkiote, baina askotan ez dute egiten legezko epeetan, nahiko atzeratuta baizik. Zehazki, onartzeko eta bidaltzeko betebeharroriek legez aurreikusitako gehieneko epearen barruan bete dituzte toki-entitateen ehuneko 58k eta ehuneko 23k, hurrenez hurren. Txosten hau egin den unean, toki-entitateen ehuneko 82k bidali dituzte 2023ko kontuak, aurreko ekitaldiko ehuneko 87aren aldean.

Aurrekontuari dagokionez, toki-entitateen ehuneko 20k soilik onetsi dute aurrekontua kasuko ekitaldia hasi baino lehen, eta ehuneko hiruk bakarrik igorri diote legezko gehieneko epean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari.

Barne-kontrola

Araudiak ezarritako barne-kontrolerako hiru modalitateetatik, kontu-hartzailletza soilik gauzatzen da modu orokorrean. Kontrol finantzarioaren eta eraginkortasun-kontrolaren funtzioei dagokienez, hurrenez hurren toki-entitateen ehuneko 35ek eta 30ek adierazten dute betetzen dituztela.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Nafarroan ez dela erregelamenduz garatu barne-kontrolaren araubide juridikoa, Estatuan ez bezala, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi baitzen, toki-sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

2023an, 30 toki-entitatetako kontu-hartzailletza organoek 147 eragozpen-ohar egin zituzten, zeinek guztira gastuen 12,66 milioiko zenbatekoa ukitzen baitute. Eragozpen gehien izandako arloa kontratazio publikoarena da, 71 eragozpen jarri baitira, gastuko 6,40 milioi ukitzen dituztenak.

Aurrekontu eta kontabilitate araudia

Nafarroako toki-kontabilitatea irailaren 21eko 272/1998 eta 273/1998 foru-dekretuek arautzen dute, 1990eko uztailaren 17ko Ministro Aginduaren bidez onetsitako toki-administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean oinarrituta. Araubide hori ez da moldatua izan 2010eko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrera; eta, era berean, toki-entitateen eta haien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeari buruzko araurik ere ez da egin.

III.2 GOMENDIOAK

Kontuan izanik azaldutako konklusioak eta aurreko txostenetan jasotako *gomendio* batzuk, indarrean dirautenak, honako *gomendio* hauek egiten ditugu:

Nafarroako Parlamentuari eta Foru Komunitateko Administrazioari:

- *Behar diren legegintza- eta administrazio-neurriak onestea, erabat burutzearren Nafarroako toki-administrazioaren berregituraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean ezarritakoa, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortzeko.*

- *Urgentziaz onartzea toki-entitateen barne-kontrolerako araubide juridikoaren erregelamenduzko garapena.*

- *Urgentziaz heltzea toki-kontabilitatearen erreformari, hura doituz 2010eko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor indardunari. Halaber, toki-entitateen eta haien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko arauak prestatzeari ekitea.*

⁷Azterketan ez dira kontuan hartzen Iruñerriko Mankomunitatearen zerbitzu-kontrata (460,89 milioi) eta Udalaren energia-horniduraren kontratuak (36,47 milioi).

- Toki-entitateen barne-kontrolako langileentzako etengabeko prestakuntzako programak ezartzea, haien beharretara eta arau- eta teknologia-aldaketetara egokituta.

- Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, halakoa zeinak argi eta zehatz jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa. Langileen zerrendak barne hartuko ditu entitatearekin lotura duten langile guztiak, horien araubide juridikoa edozein dela ere.

- Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua aldatzea, zeinaren bitartez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina, toki-entitateetan diharduten langileenganaino hedatzearen Langileen arloko neurri batzuei buruzko urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege Dekretuan xedatutakoa, zeinaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen E maila/taldeko kolektiboa zuzenean kokatu baitzen D maila/taldean, halatan Nafarroako administrazio publiko guztietako langileen baldintzak parekaturik.

- Munta txikiko kontratuak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzeko eredu normalizatua ezartzea, informazioa modu egituratuan aurkeztu eta gorde dadin, datuen tratamendu automatizatua ahalbidetuko duen formatu batean.

- Foru legeria aldatzea, Nafarroako toki-entitateek, behar bezala justifikatuta dagoenean, eta behar adinako segurtasun juridikoarekin, dirulaguntzak banakako ebaluazio-araubidean emateko prozedura erabili ahal izan dezaten.

- Legez arautzea hirugarrenek egindako prestazioak ordaintzeko kasuak, baldintzak eta prozedura, noiz eginak eta, kasuko kontratua amaituta dagoelarik, prestazioaren jarraipena bermatzeko beste bat formalizatu ez denean eta, interesa publikoaren arabera, beharrezkoa denean hura ez etetea.

Txosten hau egiteko unean, hauexek dira aurreko gure txostenean egiten ziren gomendioetatik jaramon egin zaienak:

- Toki-zerbitzuen kostuak kalkulatzeko sistema bat taxutzea eta hura ezar dadin sustatzea, bai eta kudeaketaren adierazleak ere, horrela beteko baita Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Legean eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legean xedatutakoa.

- Administrazio elektronikoko zerbitzuak toki-entitateetan ezar daitezten sustatzea, estrategia orokorra zehatzuz, eta zerbitzu horiek eraginkortasunez eta bete-betean inplementatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta teknologikoak toki-entitateen eskura jarritz, eskalako ekonomien lorpena ahalbidetzeko.

Toki-entitateei:

- Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra onestea ezarritako epeetan, eta haien guztien kontuak ematea Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari 15 eguneko epean, onesten direnetik hasita.

- Udalaren barne-kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedadurarekin, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailletza, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.

- Toki-entitateek beren burua antolatzeke duten ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arrazoizkoena diseinatzea.

- Balorazio-ponentziak epean gaurkotzea.

- Kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.

- Udal-ondasun eta -eskubideen inbentario balioetsia eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.

- Lurzoruaren udal-ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintzako hitzarmenen erregistroa ere.

- *Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea argitaratzea, AEFILOn xedatutakoarekin bat.*
- *Partzuegoak kasuko administrazio publikoaren menpe paratzea eta toki-entitateen erregistroan jasotzea horiei buruzko informazioa.*

Txosten hau egiteko unean, aurreko gure txostenean egiten ziren *gomendio* honi jaramon egiten ari zaio:

- *Egiturazko lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzea, eta gutxitzea, deialdi egokien birtatez, toki-entitateetako langilerian ikusten den behin-behinekotasun maila handia. Hain zuzen ere, arau hauek bete behar dira: 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, eta 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan 20/2021 Legearen ondoriozko egonkortze prozesuak gauzatzeko.*

2023an, aipatu araudia aplikaturik, toki-entitateek kasuko lan-eskaintza publikoak eta hautapen-prozeduren deialdiak onetsi dituzte.

Halaber, departamentuak foru-gaikuntzaren lorpenerako eta idazkaritza eta kontu-hartzailatza lanpostuak betetzeko hautapen-prozedurak amaitu zituen.

IV. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

IV.1 ANTOLAKETA-EGITURA

Toki-sektore publikoa Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera antolatuta dago.

Udalak dira lurralde-antolamenduko oinarrizko toki-entitateak. Nafarroan 272 udalerrri daude, eta horien guztizko populazioa, 2023ko urtarrilaren 1ekoa, 671.746 biztanlekoa zen, honako taula honetan agertzen den moduan banatua:

Populazio-tartea	Udalerrri-kopurua	Udalerrrien % guztizkoaren gainean	Populazioa 2023- 01-01ean	Populazioaren % guztizkoaren gainean
<101	47	17	2.815	0
101-500	104	38	24.893	4
501-1.000	37	14	26.562	4
1.001-2.000	23	8	32.402	5
2.001-3.000	22	8	55.626	8
3.001-5.000	18	7	70.360	10
5.001-10.000	9	3	68.255	10
10.001-20.000	8	3	104.294	16
20.001-30.000	2	1	42.986	6
30.001-50.000	1	0	37.791	6
50.000 baino gehiago	1	0	205.762	31
Guztira	272	100	671.746	100

Nafarroako udalerrien ehuneko 69k (188 udalerrri) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta, multzo osoan, biztanleriaren ehuneko zortzi osatzen dute. Bestalde, Iruñeak eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako 11 udalek biztanleriaren ehuneko 58 hartzen dute.

Udalerriez gain, honako hauek dira toki-entitate:

- **Kontzejuak:** udal baten mugartearen barrenean kokaturiko toki-entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- **Ohiturazko elkarteak:** Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkarteak, eta TAFLk indarra hartzean herri-ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalak.

- Udalen mankomunitateak: zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- TAFLn aurreikusitako moduan udalez gaindiko tokiko lurralde-entitate gisa eratzten diren eskualdeak.
- Nafarroako toki-entitateek eta Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA) eratzten ahal dituzten plangintza orokorreko mankomunitateak, toki-eskumeneko zenbait zerbitzuren ematea koordinatzea xede dutenak.
- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak indarra hartu zuen egunean existitzen ziren administrazio-zerbitzuen elkarteak, horien ordezkotako eskualdeak eratzten diren bitartean.

Oraindik ez da eratu inongo eskualderik edo plangintza orokorrerako mankomunitaterik.

Toki-entitateen kopurua egonkor mantendu da azken urteotan, Gollaoko kontzejuaren baja alde batera utzita:

Toki-entitatea	2019	2020	2021	2022	2023
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	346	346	346	346	345
Mankomunitateak	62	62	62	62	62
Elkartzeak ⁽²⁾	22	22	22	22	22
Guztira	702	702	702	702	701

⁽¹⁾ 60 udal konposatuak dira.

⁽²⁾ Ohiturazko elkarteak eta udalerrien elkarteak.

2019tik 2023ra bitarteko aldian honako hau da erakunde autonomoen, toki-entitate bat jabe bakarria duten merkataritza-sozietateen, toki-fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:


Entitatea	2019	2020	2021	2022	2023
Erakunde autonomoak	59	57	56	53	53
Merkataritza-sozietateak	56	54	57	58	57
Fundazio publikoak	8	8	8	8	7
Partzuergoak	17	17	17	16	16
Guztira	140	136	138	135	134

Kopuruetan sartu diren bi erakunde autonomo, zortzi sozietate eta zortzi fundazio ez dira ageri Toki Entitateen Erregistroan txosten honen datan, baina Ganbera honek identifikatu egin ditu bere fiskalizazio-lanetan. 2023an, erakunde autonomo baten alta erregistratu da: Zarrakazteluko Nuestra Señora del Rosario zaharren egoitza.

Sozietateei dagokienez, Baztango Udalaren mendeko Zaintza Lanak sozietatearen alta erregistratu da, bai eta Roda Viejoren (Arasko Udalaren mendekoa) eta Aresoko Udalaren Hirigintzako Sozietatearen bajak ere.

Barañaingo Auditorioa Fundazioaren baja erregistratu da 2023ko ekitaldian.

Aurreko datuen arabera, hona hemen Nafarroako toki-sektore publikoaren egitura 2023ko abenduaren 31n:



IV.2 TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ARRAZIONALIZAZIOA

Ganbera honek behin eta berriz adierazi du Nafarroako egungo udal-antolaketan arrazionalizazio falta dagoela. Arazo horrek, bada, bere horretan dirau, Nafarroako udalerrien biztanleria-dimentsio murriztarekin batera. Gai horrek eragiten dio baliabideen hornidurari eta eskumenak berak baliatzeko administrazio-egitura egokirik ez izateari ere; legezko zenbait betebeharrak betetzea oztopatzen du, eta, halaber, eragina du zerbitzu publikoak behar bezala, eraginkortasunez, efizientziaz eta kalitatez emateko.

Horri dagokionez, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak aurreikusi zuen kasuko arauen onespeneraren bitartez tokiko mapa erreformatzea eta finantzaketa-sistema berri bat ezartzea.

Tokiko maparen erreformari dagokionez, foru-lege horrek eskualdeak figura gisa ezartzen ditu, lurralde-izaerako eta udalez gaindiko esparruko toki-entitate gisa eta zerbitzu-ematearen nahiz jardueren kudeaketaren arduradun gisa. Eskualdeen eratzea udalek edo Nafarroako Gobernuak proposaturikoa litzateke. Horretarako, 18 hilabeteko epe bat ezarri zen, zeina 2020ko abuztuan amaitu baitzen.. Txosten hau jaulki den egunean, ez dago eraturako eskualderik.

Toki-finantzaketaren arloan, 2022an, martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legea onetsi zen, eta horren bidez Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatu zen. 2022ko legeak finantzaketa-sistema berri bat ezarri zuen, eta, horren bidez, Toki Ogasunen Funtsaren zuzkidura zenbateko finko gisa ezarri zen, urtero eguneratzen dena Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera. Transferentzia arruntzen funts baten (TAF, aurrerantzean) eta kapital-transferentzien funts baten bidez egituratzen da, eta osagarri gisa urteko konpentsazio bat dauka, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondoriozko diru-bilketa galerarako.

IV.3 NAFARROAKO TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Txosten honen I. eranskinean, Nafarroako toki-sektore publikoan 2023an aplikatu beharreko arau nagusiak zerrendatu dira, bai eta ekitaldi horretan onetsitako beste batzuk ere, geroago indarrean jarri arren.

Honako hauek nabarmentzen ditugu:

- Diputatuen Kongresuaren Erabakia, 2023ko abenduaren 13koa, zeinaren bidez berraktibatzen baitira 2024ko ekitalditik aurrera koronabirusaren pandemiagatik eta, ondoren, Ukrainako gerraren inpaktuagatik eten ziren zerga-arauak.
- Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzen duen otsailaren 6ko 2/2023 Foru Legeak tokiko merkataritza-sozietateak birdefinitzen ditu, eta halakotzat hartzen ditu ez bakarrik kapital sozial osoa toki-entitatearena edo haren ente publiko batena

dutenak, baizik eta baita toki-entitateak gobernu-organoetan botere nagusia duen sozietateak ere, nahiz eta jabetza osoa % 100 publikoa ez izan⁸.

• Martxoaren 29ko 12/2023 Foru Legea, abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren bidez onetsitako Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testuategina aldatzen duena. Aldaketa nagusien artean, honako hauek nabarmetzen dira: administrazio-karreraren zazpi graduko muga kentzea, lanaldi-murrizketen araubide berria, eta opor-egun gehigarriak eta norberaren gauzetarako baimenak antzinatasunaren arabera sartzea.

V. 2023KO EKITALDIARI DAGOZKION FISKALIZAZIO-JARDUKETEN LABURPEN-OROTIDAZKIA

Toki-sektore publikoaren alorrean, Kontuen Ganberak finantzen eta legezketasunaren fiskalizazio txostenak egin ditu, 2022ko ekitaldiari buruzkoak, honako toki-entitate hauetarako:

Toki-entitatea	Txostenaren jaulkipen-data	Biztanleak 2023-01-01ean	Aitortutako betebeharrak	Aitortutako eskubideak	Langileria 2023/12/31n	Fiskalizazioaren emaitza ¹	
						Finantzei buruzko iritzia	Betetze-maila
Iruña ²	2024/12/19-2025/06/13	205.762	261.774.815	288.826.913	1.754	Aldekoa	Salbuespenekin (2)
Iratiko HHSen Mank.	2024-11-15	5.926	758.345	712.356	8	Aurkakoa	Aurkakoa
10.000 biztanletik gorako udalerriak	2024-12-23	390.833	-	-	-	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen
Tutera	2025-02-20	37.631	7.186.018	5.687.811	34	-	Salbuespenekin (2)
Fontellas	2025-05-08	1.005	2.858.102	2.109.897	16	Salbuespenekin (3)	Salbuespenekin (6)
Barañaingo erakunde autonomoak	2025-05-09	19.575	3.273.657	3.228.471	36	-	Salbuespenekin (2)
Lizarrako erakunde autonomoa	2025-05-09	14.195	329.773	329.717	15	-	Salbuespenekin (1)
Zizur Nagusiko erakunde autonomoa	2025-05-09	15.715	565.150	559.774	13	-	Salbuespenekin (1)
Berriozar	2025-06-25	10.919	9.614.782	9.541.715	103 + 73 sozietateetakoak	-	Salbuespenekin (3) + (2) sozietate publikoetakoak
1.001etik 2.000ra biztanle arteko udalak ⁴	2025-06-27	30.246	45.370.291	47.774.119	255	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen
Fiskalizatutako toki-entitateak, guztira		428.010	331.730.933	358.770.773	2.307		

(1) Parentesi artean, hala badagokio, albuespenen kopurua.

(2) Erregularitasun-auditoretzaz gain, 2023-2024ko kontratazio publikoaren gardentasunari eta publizitateari buruzko legezketasuna betetzen dela fiskalizatu zen, eta aldeko iritzia eman zen, albuespen batekin.

(3) Energia aurrezteko eta efizientzia energetikorako neurrien plangintzari buruzko fiskalizazio operatiboa.

(4) Ordainketa-prozeduren fiskalizazio operatiboa: araudiaren eta finantza-kudeaketa onaren printzipioen arabeko prozedurak

Iruñeko Udalean, Fontellasko Udalean eta Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitatean 2023ko ekitaldiko kontu orokorraren fiskalizazio finantzarioa egin zen, jarduera ekonomiko-finantzarioaren legezketasun-fiskalizazioarekin batera.

Gainerako kasuetan, langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntza alorretako legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioak egin ziren.

Horrez gain, Iruñeko Udalaren kontratazio publikoaren gardentasun- eta publizitate-betebeharrei dagokienez legezketasuna betetzeari buruzko auditoretza bat egin zen.

⁸Aurreko testua hau zen: "d) Merkataritza-sozietatea zeinaren kapital soziala oso-osorik izanen baita toki-entitatearena edo haren ente publiko batena".

Auditoretza operatiboak ere egin ziren 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan⁹ energia aurrezteko eta energia-eraginkortasunerako neurrien plangintzari buruz, bai eta 1.001 eta 2.000 biztanle arteko udalerrietan¹⁰ udalek aplikatutako ordainketa-prozedurei buruz ere.

Fiskalizazioen emaitzak txostenetan jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratuta daude.

Jarraian labur azaltzen dira 2023ko ekitaldiko finantza- eta legezketasun-fiskalizazioaren emaitza nagusiak:

- Iruñeko Udalean, finantza-auditoretzaren iritzia aldekoa izan zen; legezketasuna betetzeari buruzko auditoretzak, berriz, aldekoa izan ziren, bi salbuespenekin: bata, kontratu-estaldurarik gabe emandako zerbitzuen gastuei buruzkoa, kontratuen gehieneko indarraldia gairatu zelako; eta, bestea, Nafarroako Kontratazioaren Atarian aldatutako, ebatzitako eta amaitutako kontratuei buruzko informaziorik ez argitaratzeagatik.

- Iratiko Hiri Hondakin Solidoen Mankomunitateak kontrako iritzi finantzarioa izan zuen; izan ere, zazpi akats esanguratsu antzeman ziren, bai eta akatsak ere barne-kontrollean, diruzaintzaren kudeaketan eta inbentarioan. Betetze-auditoretza ere kontrakoa izan zen. Zazpi salbuespen identifikatu ziren aurrekontuaren, kontratazioaren, langileen eta diru-bilketaren arloetako ez-betetzeengatik.

- Fontellasko Udalak aldeko iritzi finantzarioa izan zuen, salbuespenekin; izan ere, aurrekontu-emaitzak, emaitza ekonomikoak eta balantzeak zenbaterako okerrak zituzten. Betetze-auditoretza aldekoa izan zen, salbuespenekin. Sei salbuespen identifikatu ziren aurrekontuaren, kontratazioaren, dirulaguntzen eta diru-bilketaren arloetako ez-betetzeengatik.

- Udal batek, lau erakunde autonomok, enpresa-erakunde publiko batek, mendeko sozietate publiko batek eta bi fundaziok ondoz ondoko prestazioak izapidetu zituzten munta txikiko kontratu gisa. Kontuan hartuta prestazio horiek hainbat ekitalditan eman zirela, balio zenbatetsiari dagokion prozeduraren bidez lizitatu beharko ziratekeen.

- Bi udalek, lau erakunde autonomok eta enpresa-entitate publiko batek aitortu zituzten kontratu-oinarri egokirik gabe emandako zerbitzuengatik gastuak, kontratuak mugaeguneratuta egotearen ondorioz.

- Bi sozietate publikok ez zuten Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu munta txikiko kontratuen hiruhileroko zerrenda.

- Udal batek ez zituen argitaratu emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionallean.

- Udal batek ez zuen plantilla organikoa onetsi ez NAOn argitaratu 2019ko ekitalditik.

Finantza- eta legezketasun-gaietan, hauek izan ziren txostenetan jasotako *gomendio* nagusiak:

- *Langileen arloko barne-kontrola indartzea, nominetan antzemandako akatsak gerta ez daitezten.*

- *Behin-behinekotasuna murrizteko behar diren neurriekin jarraitzea, araudian ezarritako helburua lortu arte.*

- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gairatuzko.*

- *Prozedura egokiaren bidez lizitatu eta esleitzea munta txikiko kontratuentzako araubide berezia erabiltzea ahalbidetzen duten mugak baino gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratu guztiak.*

⁹Antsoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Lizarra, Iruña, Tafalla, Tuter, Aranguren, Eguesibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

¹⁰Arbizu, Arroitz, Artaxoa, Cabanillas, Cárcar, Oltza Zendea. Doneztebe, Ezkabarte, Itza, Lakuntza, Lekunberri, Lerin, Iruberrri, Mendigorria, Monteagudo, Olazti, Sartaguda, Sesma, Ultzama, Deierrri eta Villatuerta, bai eta haien sei erakunde autonomoak eta menpeko bost merkataritza-sozietateak ere.

- *Munta txikiko araubide bereziko kontratazioaren hiruhileroko zerrenda argitaratzea, araudiak ezartzen duenaren arabera.*
- *Aldatutako, ebatzitako eta amaitutako kontratu guztiei buruzko informazioa argitaratzea Nafarroako Kontratazioaren Atarian.*
- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.*
- *Diruz lagundutako jarduketaren oroitidazki-eredu bat egitea, bai eta diruz lagundutako jarduketaren gastu eta diru-sarreraren justifikazioaren aurkezpenarena ere, errazte aldera dokumentazio hori onuradunei aurkeztea eta, ondoren, berrikustea, kasu guztietan aurkezteko eskatuz.*
- *Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*
- *Erregelamenduz garatzea udal-taldeen finantzaketa justifikatzeari buruzko araubidea, erregulaturik bai haien diru-zuzkiduren erabilera, bai formazko betekizunak eta prozedura, halako moldez non diru-zuzkidurez eginiko erabilera kontu-hartzaitzaren fiskalizaziopean jarriko baita eta gutxienik urtean behin osoko bilkurari jakinaraziko baitzaio.*
- *Onuradunei exijitzea dirulaguntza eman aurretik justifikatu dezatela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.*
- *Aurreko eta/edo osteko kontroleko jarduerak egin bitzate barne-kontroleko organoek erakunde autonomoei eta merkataritza-sozietateei buruz; batez ere, ez dagoenean menpeko entitateen barreneko eginkizun-bereizketa egokirik.*
- *Sinadura mankomunatua ezartzea banku-kontuetan gordailututako funtsak erabiltzeko, eta finantza-erakundeei eskatzea, hala dagokionean, funtsak erabiltzeko baimena duten pertsonak aldatzea eta hala egin dela egiaztatzea.*
- *Arauan ezarritako oinarrizko printzipioetara eta eskakizunetara egokitutako mugikortasun jasagarriko plan bat egitea eta onestea.*

VI. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

2023ko toki-sektore publikoari buruz departamentuak egindako txostenak toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua dakar. Txosten hori 2. eranskinean dago. Era berean, txosten horrek Iruñerriko Mankomunitatearen eta Jurramendiko Mankomunitatearen mendeko sozietate publikoei buruzko datu bateratuak jasotzen ditu.

Ekitaldien arteko aldeak aztertzean, kontuan hartu behar da 2023ko ekitaldian Jurramendiko Mankomunitatearen mendeko sozietate publikoak sartu direla, aurreko ekitaldian sartu ez zirenak. Bateratzeari dagokionez, sozietate horiek 4,55 eta 5,28 milioi euroko diru-sarrerak eta gastuak dituzte, hurrenez hurren.

Aurreko ekitaldiekiko konparaziorako, gure txostenean jasotzen ziren datuei heldu diegu.

VI.1 DIRU-SARRERAK

Jarraian, 2023ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-mailaren laburpen bat aurkezten da. Bertan, toki-entitateak, haien erakunde autonomoak eta aipatutako mankomunitateen sozietate publikoak sartzen dira:

(milioitan)

Kapitulua	Behin betiko aurreikuspenak	AEG 2023	%, diru-sar. guzt. gainean	Betetze-mailaren %	AEG 2023/22 aldea	2023/22 aldearen %
1 Zuzeneko zergak	198	207	17	104	2	1
2. Zeharkako zergak	30	36	3	119	-1	-3
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	266	280	23	105	6	2
4 Transferentzia arruntak	425	448	37	105	33	8
5. Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	62	64	5	103	5	8
Diru-sarrera arruntak	981	1.033	86	105	44	4
6. Inbertsio errealeen besterentzea	10	46	4	458	24	109
7 Kapital-transferentziak	142	104	9	73	3	3
Kapitaleko diru-sarrerak	152	150	13	99	27	22
8 Finantza-aktiboak	198	5	0	2	3	274
9 Finantza-pasiboak	71	7	1	10	-13	-65
Diru-sarrera finantzarioak	269	12	1	4	-9	-44
Guztira	1.401	1.194	100	85	62	5

Diru-sarreraren 2023rako behin betiko aurreikuspenek 1.401 milioi euro egin zuten, eta ehuneko 85eko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntan betetze-maila ehuneko 105ekoa da, eta kapitaleko diru-sarrerena, ehuneko 99koa. Bestalde, diru-sarrera finantzarioen betetze-maila ehuneko laukoa izan zen.

Aitortutako eskubide garbiek (AEG) 1.194 milioi egin zuten. Horietatik ehuneko 86 diru-sarrera arruntak izan ziren (gehienbat, transferentziak eta tributuak), eta kapitaleko diru-sarrerak guztizkoaren ehuneko 13 izan ziren.

2023ko guztizko diru-sarrerak ehuneko bost handitu ziren aurreko ekitaldikoaren aldean. Diru-sarrera arruntek ehuneko lauko igoera izan dute 2022arekin alderatuta, transferentzien eta ondare diru-sarreraren igoeraren ondorioz. Transferentzia arruntak 33 milioi igo ziren; nagusiki, 2023ko ekitaldirako TAFaren zuzkidura igotzeagatik eta energia-kostuen igoeragatik funts bereziarengatik (zortzi milioi).

Kapital diru-sarrerak ehuneko 22 igo ziren 2022koekin alderatuta. Gehikuntza handi hori, neurri handi batean, Iruñeko Udalak egindako 34,42 milioiko lur-besterentzeen ondorio da.

Diru-sarrera finantzarioak ehuneko 44 jaitsi ziren 2022koekin alderatuta, batez ere Iruñeko Udalak aurreko ekitaldian bi mailegu formalizatu zituelako, guztira 15 milioikoak.

Guztizko diru-sarreretatik, ehuneko 78 udalerriei dagokie, ehuneko 20 mankomunitate eta elkartzei, eta gainerako ehuneko bata, kontzejuei. Banaketa hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Transferentziengatik diru-sarrerak, funtsean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik datoz, guztizkoaren ehuneko laurogeita hamabi ematen baitu, eta 505,44 milioi eurokoak dira, transferentzia arruntei eta kapital-transferentzietatik dagozkienak.

(milioitan)

Naf. Aurr. Orok. kapital-transfe- rentziak toki-entitateei	2021	2022	2023	2023/21 aldea (abs.)	2023/21 aldea (%)	2023/22 aldea (abs.)	2023/22 aldea (%)
Arruntak	341	369	422	81	24	53	14
Kapitalekoak	30	85	84	54	177	-1	-1
Transf., guztira	371	453	505	134	36	52	11

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak toki-entitateei egindako transferentzien guztizkoa ehuneko 11 igo da 2022arekin alderatuta. Haien izaeraren arabera, honako hau azpimarratzen dugu:

- Transferentzia arruntak ehuneko 14 igo dira, batez ere toki-ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsa 30 milioi handitu delako. Martxoaren 22ko 7/2022 Foru Legeak ezartzen duenez, 2022ko ekitalditik aurrera, funts horren zenbatekoa urtero handituko da, KPIa gehi ehuneko bi puntu gehituta. 2023an, igoera osoa ehuneko 12,20koa izan zen.

Kapitulu horren barrenean 12,4 milioi daude, zeinak baitira milioi bat baino gutxiagoko negoziozifra duten subjektu pasiboak jarduera ekonomikoaren gaineko zergatik salbuestearen ondoriozko dirubilketa-galerarengatik toki-entitateetara bideraturiko konpentsazioarenak.

- Kapital-transferentziak ehuneko bat murriztu ziren aurreko ekitaldiarekin alderatuta, baina ehuneko 177 igo ziren 2021arekin alderatuta¹¹.

Hurrengo taulan, transferentzia arruntengatik eta kapital-transferentziengatik Nafarroako Aurrekontu Nagusien kargura aitortutako betebeharrak garbierak (ABG) sailkapen funtzionala erakusten da:

(milioitan)

Transferentzien sailkapen funtzionala	2022	2023	Ald. abs. 2023/22	2023/22 al- dea (%)
94 Transferentziak beste administrazio batzuei	292	329	37	13
26. Etxebizitza eskuratzea eta sustatzea	34	38	4	13
23. Gizarte zerbitzuak eta sustapena	32	35	3	11
32. Hezkuntza	30	39	9	31
44. Garraiorako dirulaguntzak	15	20	5	35
45. Azpiegiturak	14	11	-3	-22
43 Merkataritza, turismoa eta ETEak	11	1	-10	-89
33. Kultura	8	9	2	20
Gainerakoak	17	22	6	33
Guztira	453	505	53	12

Transferentzien ehuneko 65 (328,78 milioi) "Transferentziak beste administrazio batzuei" politikari dagozkio. Horrek barne hartzen ditu toki-ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsaren transferentzia arruntak.

¹¹2022ko ekitaldian, toki-entitateek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsak 33 milioiko igoera izan zuen, kapital-transferentzien zatian, Tokiko Inbertsioen Planaren bidez.

VI.2 GASTUAK

Jarraian, 2023ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren betetze-mailaren laburpen bat aurkezten da. Bertan, toki-entitateak, haien erakunde autonomoak eta aipatutako mankomunitateen sozietate publikoak sartzen dira:

(milioitan)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak 2023	Gastu guztien gainean (%)	Betetze-mailaren %	ABG 2023/22 ald.	Aldearen %, 2023/22
1 Langileria-gastuak	418	405	36	97	43	12
2 Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak	448	405	36	90	11	3
3 Gastu finantzarioak	4	3	-	82	2	213
4 Transferentzia arruntak	73	68	6	93	-25	-27
Eragiketa arruntak	943	881	79	93	32	4
5 Kontingentzia-funtsa	-	-	-	-	-	-
Kontingentzia-funtsa	-	-	-	-	-	-
6 Inbertsio errealak	405	201	18	50	27	15
7 Kapital-transferentziak	14	7	1	50	-11	-61
Kapital-eragiketak	419	208	19	50	16	8
8 Finantza-aktiboak	11	5	-	51	4	322
9 Finantza-pasiboak	23	22	2	98	2	11
Finantza-eragiketak	33	28	2	83	6	30
Guztira	1.395	1.116	100	80	54	5

Behin betiko kredituak 1.395 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 80ko betetze-maila izan zuten. Diru-sarrera arrunten betetze-maila ehuneko 93koa izan zen, eta kapital-eragiketena, ehuneko 50ekoa.

2023ko guztizko gastua 1.116 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik ehuneko 36 eta ehuneko 36, hurrenez hurren, langile-gastuei eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuari dagozkie. Bestalde, inbertsio errealen kapitulua guztizkoaren ehuneko 18 da.

Guztizko gastua ehuneko bost igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hau da, 54 milioi euro, batez ere langileria-gastuak eta inbertsio errealek gora egin dutelako, 43 eta 27 milioi, hurrenez hurren. Langileria-gastua ehuneko 12 igo zen 2022arekin alderatuta, batez ere Iruñeko Udalak zuzeneko gastutzat hartu zuelako etxeko laguntza-zerbitzuko langileen kostua.

Guztizko gastuetatik, ehuneko 77 udalerriei dagokie, ehuneko 22 mankomunitate eta elkartezi, eta gainerako ehuneko bata, kontzejuei.

Ondorengo taulan gastu bateratuaren sailkapen funtzionala eta horrek aurreko ekitaldiarekiko izandako bilakaera ageri dira.

(milioitan)

Gastu-politika	Sozietateekin bateratuta			
	2023ko gastuak	%, gastu guztien gainean	2022arekiko ald. abs.	2023 vs 2022 ald. (%)
Ongizate komunitarioa	210	19	-1	0
Zerbitzu orokorrak	120	11	5	4
Hezkuntza	95	9	4	4
Etxebizitza eta hirigintza	87	8	3	4
Kultura	86	8	7	9
Gizarte zerbitzuak eta gizarte sustapena	85	8	2	3
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	79	7	8	11
Kirola	75	7	7	10
Pentsioak	59	5	4	8
Garraio publikoa	35	3	2	7
Ingurumena	32	3	4	16
Zor publikoa	26	2	5	21
Beste batzuk	127	11	3	2
Guztira	1.116	100	54	5

“Ongizate komunitarioaren” eta “Zerbitzu orokorren” arloko politikek biltzen dituzte gastu-bolumenik handienak; guztizkoaren ehuneko 19 eta 11, hurrenez hurren. Jarraian, “Hezkuntza”, “Etxebizitza eta hirigintza”, “Kultura” eta “Gizarte-zerbitzuak eta -sustapena” izeneko politikak daude. Lehenengoak ehuneko bederatzia hartzen du, eta gainerakoek ehuneko zortzi.

“Ongizate komunitarioaren” politikan bateratutako gastuaren ehuneko 41 hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamenduari dagokio, eta ehuneko 24 edateko uraren etxez etxeko hornidurari. Politika horretan sartzen dira, halaber, argiteria publikoko, bide garbiketako eta estolderiako gastuak, besteak beste.

Urtetik urterako alderaketan, nabarmena da “Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna” eta “Kirola” arloen hazkundea.

VI.3 SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSAK

Kontuen Ganberak fiskalizatutako toki-entitateek Next Generation EU funtsak jaso zituzten 2021-2023ko aldian, Espainiako Erresumaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean (SEEP) sartutako proiektuak finantzatzeko. Funts horiek 30,33 milioi eurokoak izan ziren, eta 27,13 milioiko gastuak egin zituzten.

VI.4 ADIERAZLEAK

Beheko taulan, toki-sektore publikoan¹² gastatutako 100 euroko kopuru bakoitzaren banaketa erakusten dugu, bai eta finantzaketa ere, sozietateak barne hartu gabe:

Gastuaren izaera	2022	2023	Finantzaketa-iturria	2022	2023
Langileak	34	36	Tributu bidezko diru-sarrerak ¹³	45	44
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	37	36	Transferentziengatiko diru-sarrerak	46	46
Transferentziengatiko gastuak	10	7	Ondare bidezko diru-sarrerak eta bestelakoak	5	5
Inbertsio errealak	16	18	Inbertsioen besterentzea	2	4
Finantza-zama	2	2	Zorpetzea	2	1
	100	100		100	100

2023an, toki-sektore publikoaren bi diru-sarrera iturri nagusiak transferentziak eta tributu bidezko diru-sarrerak dira, zeinek haien baliabideen ehuneko 46 eta 44 ekartzen baitituzte, hurrenez hurren. 2022koekin alderatuta, tributu bidezko diru-sarreraren ekarpena pixka bat murrizten da, eta inbertsioen besterentzearen pisu erlatiboa gehitzen.

Gastuei dagokienez, langileenak eta ondasun arruntetakoak eta zerbitzuetakoak dira nagusi, zeinek ehuneko 36 eta ehuneko 36, hurrenez hurren, egiten baitute; atzetik inbertsio errealenak datoz, ehuneko 18rekin. 2022arekin alderatuta, nabarmentzekoa da transferentziengatiko gastuen murrizketa.

¹²Iruñerriko eta Jurramendiko mankomunitateetako sozietate publikoekin bateratutako datuak.

¹³Diru-sarreraren aurrekontuko 1., 2. eta 3. Kapituluak.

Jarraian, toki-sektore publikoaren finantza egoeraren adierazle batzuek 2019-2023ko aldian zehar izan duten bilakaera ageri da:

Adierazleak	Toki-entitateak, ezein sozietate bateratu gabe					2023/19 aldea (%)	2023/22 aldea (abs.)	2023/22 aldea (%)	(milioiak)	
	2019	2020	2021	2022	2023				2022 (1)	2023 (2)
Diru-sarrerak, guztira	891	855	894	1041	1094	23	53	5	1133	1194
Gastuak, guztira	885	799	891	965	1012	14	47	5	1063	1.116
Tributu bidezko diru-sarrerak	402	374	405	438	442	10	4	1	515	522
Transferentziengatiko diru-sarrerak	424	430	421	502	532	25	30	6	516	552
Funtzionamendu-gastuak	654	643	690	775	798	22	24	3	848	878
Kapital-gastua	199	124	174	168	182	-9	15	9	192	208
Aurrekontu-emaitza ez-finantzariora	31	78	24	77	98	216	21	27	71	94
Aurrezki gordina	138	139	139	129	145	5	16	12	141	155
Finantza-zama	31	30	26	21	26	-16	4	21	21	26
Aurrezki garbia	107	109	113	107	119	11	12	11	119	130
Finantza-zamaren indizea	4	4	3	2	3	-30	0	16	2	2
Aurrezki gordina / diru-sarrerak arruntak (%)	17	18	17	14	15	-12	1	8	14	15
Zorpetzeko gaitasuna (%)	14	14	14	12	13	-7	1	6	12	13
Zor bizia (3)	180	138	122	119	100	-44	-18	-15	119	100
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina.	275	302	335	374	401	46	27	7	Ez da aplikatzen	Ez da aplikatzen

(1) SCPSArekin bateratutako adierazleak.

(2) SCPSArekin eta Jurramendiko sozietateekin bateratutako adierazleak.

(3) Toki-sektore publiko osoarena, barnean harturik toki-entitateak, haien erakunde autonomoak eta haiek ehuneko 100eko partaidetza duten sozietate guztiak.

Ezin da zehaztu sozietateen gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin bateratua. Alabaina, haren maniobra-funtsa ¹⁴ 38,69 milioikoa da.

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako zertzelada hauek azpimarratu behar ditugu:

2023an, diru-sarrera bateratuek ehuneko bost egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 2019koak baino ehuneko 23 gehiagokoak izatera iritsi dira¹⁵.

- 2023an bateratutako diru-sarrera arruntak ehuneko lau igo dira, eta guztira 1.033 milioi izan dira.

- 2023ko guztizko gastu bateratuak ehuneko bost igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 2019koak baino ehuneko 14 gehiagokoak izatera iritsi dira¹⁵.

- Funtzionamendu-gastu bateratuak ehuneko hiru hazi dira eta 878 milioira iritsi; hots, azken bost urteetako gehieneko zenbatekoa.

¹⁴ Entitatearen balantzetik lortzen da, aktibo arruntaren eta pasibo arruntaren arteko diferentziatik.

¹⁵ Toki-entitateak, ezein sozietate bateratu gabe.

¹⁵ Toki-entitateak, ezein sozietate bateratu gabe.

- Kapital-gastu bateratuak ehuneko zortzi igo dira, halatan 208 milioira iritsirik. 2019ko ekitaldiarekin alderatuta, ehuneko bederatziko beherakada izan dute¹⁵.

- Finantza-zama bateratua ehuneko 21 igo zen 2023an, eta horrek aldaketa dakar azken ekitaldietako beheranzko joerarekin alderatuta.

- Finantza-zama handitu arren, aurrezki garbi bateratua, funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egin ondoren, ehuneko bederatziko igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 130 milioi egin zuen.

- Nafarroako toki-entitateen zor bizia, 2023aren amaieran, haien erakunde publiko guztiak eta haien partaidetza osoa duten sozietate publikoak kontuan hartuta, 100 milioikoa zen, hau da, 2022koa eta 2019koa baino ehuneko 15 eta 44 txikiagoa, hurrenez hurren. 2023an 22 milioiko zorra amortizatu zen, eta zazpi milioiko zor berria hitzartu. Zor biziaren batez besteko interes-tasa ehuneko 4,29koa da, eta batez besteko mugaeguneratze-epea, 8,88 urtekoa.

- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, alegia, sortutako baliabideen soberakina, etorkizuneko ekitaldietan gastu-aldaketak finantzatzeko erabiltzen ahal dena, azken urteotako joerari eutsiz, igo egin da eta 401 milioira iritsi da 2023aren amaieran. Horrenbestez, ehuneko zazpi eta ehuneko 46 hazi da, hurrenez hurren, 2022koaren eta 2019koaren aldean.

Laburbilduz, Nafarroako toki-entitateen egoera finantzarioa sasoitsua izaten ari da azken ekitaldietan. Diru-sarrerek gastuek baino proportzio handiagoan egin dute gora, eta horrek aurrekontu-emaitzaren gehikuntza ekarri du, 2022ko ekitaldiaren aldean. Funtzionamendu-gastuak eta finantza-zama handitu diren arren, ekitaldiko aurrezki garbia handitu egin da, diru-sarrera arrunten hazkunde handiagoak bultzatuta. Gainera, zorraren murrizketak eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren goranzko joerak, tokiko sozietate publikoen maniobra-funts zabalarekin batera, finantza-posizio sendoa indartzen dute.

VI.5 NAFARROAKO UDALEN ARTEKO KONPARAZIOZKO ANALISIA, BIZTANLERIA-TARTEEN ARABERAKOA

Hurrengo taulan, biztanleria-tarte desberdinetan dauden Nafarroako udalen¹⁶ adierazle-multzo bat konparatzen da:

(Euroak)

Biztanleak	1.000 bitarte	1.001-5.000	5.001-10.000	10.001-40.000	40.001 baino gehiago
Udalen kopurua	157	63	9	11	1
Biztanleak, guztira	48.765	158.388	68.255	185.071	205.762
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.893	1.593	1.443	1.187	1.404
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.458	1.366	1.207	1.073	1.156
Kapital diru-sarrerak (biztanleko)	435	227	236	113	247
Funtzionamendu gastuak (biztanleko)	1.106	1.110	1.025	922	1.075
Kapital-gastuak (biztanleko)	584	368	195	181	155
Finantza-zama (biztanleko)	39	41	52	20	42
Aurrezki gordina (biztanleko)	352	255	182	151	82
Aurrezki garbia (biztanleko)	313	215	129	131	40
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kapituluak zati diru-sarrera arruntak)	3	3	4	2	4
Aurrezki gordinaren ehunekoa diru-sarrera arrunten gainean (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	24	19	15	14	7
Transferentzia arrunten bidezko diru-sarrerak (biztanleko)	647	619	586	551	581
Transferentzia arruntez finantzatutako gastu arrunten ehunekoa	58	55	57	60	54

¹⁶ Udalaren eta haren EEAAen datu bateratuak.

Iruña izan ezik, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak dira guztizko diru-sarrerak, diru-sarrera arruntak eta kapitalekoak, bai eta biztanleko aurrezki gordina eta funtzionamendu- eta kapital-gastuak.

VI.6 AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK

AEFILOren arabera, Toki Administrazioaren esparruan arau fiskal hauek bete behar dira:

- Aurrekontu-egonkortasuna: finantzatzeko ahalmena izatea, kontabilitate nazionaleko terminoetan neurtuta.
- Gastu-araua: gastu konputagarriaren urtetik urterako aldaketak ez du gainditu behar BPGaren epe ertaineko hazkundearen erreferentzia-tasa.
- Zor publikoaren jasangarritasuna: toki-entitate bakoitzaren zor biziak, gure araudiaren arabera, ez du gainditu behar bere diru-sarrera arruntaren ehuneko 110.
- Merkataritza-zorraren jasangarritasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin du gainditu 30 eguneko epea.

Hori horrela, departamentuak emandako informazioan ez da Nafarroako "Toki Administrazioa" azpisektorea hertsiki Kontabilitate Nazionaleko (SEC-2010) irizpideekin zedarritzen, baizik eta toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen multzoari buruzko datuak eskaintzen dira, barne harturik, zor publikoari dagokionez, toki-entitateek partaidetza osoa duten sozietateak ere.

COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa zela-eta, eta Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak aparteko larrialdi bat gertatu zela jo zuen, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta AEFILOn ezarritakoarekin bat. Horrenbestez, 2020-2021eko aldirako etenda gelditu ziren aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak, eta etenaldi hori luzatuz joan da denboran zehar, 2022ko eta 2023ko ekitaldietara.

Nolanahi ere, ardura fiskalerako eta zuhurtzarako oharmenak ikusarazten du komeni dela etendako arauak aipatzen dituzten aldagaien bilakaerari ere jaramon egitea. Hartara:

a) Aurrekontu-egonkortasunaren arauari dagokionez, toki-sektore publikoak 31,25 milioiko finantzaketa-ahalmena du, beheko taulan xehetasunez azaltzen denez:

	(milioiak)			
Finantzaketa-gaitasuna/-beharra	2020	2021	2022	2023
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	78,00	24,43	77,36	94,27
Doikuntzak:				
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	-11,66	*-4,64	-16,88	-89,43
Beste administrazio publiko batzuegandik jasotako transferentziak	21,46	20,08	37,24	26,41
Finantzaketa-ahalmena	87,80	39,88	97,72	31,25

(*) TADZNeK 2023ko azaroan emandako datua, zuzendaritza nagusi horrek 2023ko apirilean finantza-egoerari buruz egindako txostenean jasotakoa zuzentzekoa.

b) Gastu-arauari dagokionez, 2023ko ekitaldirako gastu-araua eten zenez, ez zen epe ertainerako BPGren hazkundearen erreferentzia-tasarik ezarri ondorio horietarako. Departamentuaren txostenak ez duenez eskatutako informazioa jasotzen, ez du gastu konputagarriaren aldaketa-tasari buruzko daturik.

c) Zor publikoaren jasangarritasunari dagokionez, toki-sektore publikoaren zor bizia 100,22 milioikoa zen 2023ko abenduaren 31n; hau da, diru-sarrera arrunt bateratuen ehuneko 9,70.

d) Merkataritza-zorraren jasangarritasun-araua indarrean zegoen 2023an, baina txostenak ez du haren betetzeari buruzko informaziorik ematen. Hiru hilean behin Ogasun Ministerioak gai horretaz argitaratzen duen informazioan Nafarroako zenbait toki-entitateri buruzko datuak bakarrik azaltzen dira (77-88 entitate bitarte, hiruhilekoaren arabera); alegia, Nafarroako toki-entitateen ehuneko zortzik baino ez dute igortzen informazio hori. Datuen arabera, informazioa eman duten toki-entitate guztientzako batez besteko ordainketa-epea 20,55 eta 35,52 egun bitartekoa izan zen, legez ezarritako 30 egunen aldean. Lehen hiruhilekoan eta azkenekoan 20 egun ingurukoa izan zen, eta tarteko hiruhilekoetan 30 egunetik gorakoa.

VII. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako kontratu-erregistroko informazioaren arabera toki-entitateek eta haien menpeko erakundeek 2023. urtean esleitu zituzten kontratuak aztertzen dira. Informazio horrek ez ditu barne hartzen munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren bitartez eginiko kontratazioak.

Hurrengo taulan, toki-sektore publikoaren 2023ko kontratazio-jarduera laburbiltzen da, kontratu-kopurua eta haien esleitze-zenbatekoa adierazita.

(milakoak)

	Obrak		Zerbitzuak		Hornidurak		Herri-lanen/zerbitzuen emakida		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Udalerriak	271	57.598	150	32.793	76	42.335	17	453	514	133.179
Kontzejuak	8	675	0	0	0	0	0	0	8	675
Elkartzeak	5	576	2	85	1	55	0	0	8	717
Mankomunitateak	25	7.618	23	461.981	19	2.479	0	0	67	472.078
Toki-entitateak, guztira	309	66.467	175	494.859	96	44.868	17	453	597	606.648
Erakunde autonomoak	3	4.684	6	1.863	2	59			11	6.605
Enpresa-entitate publikoak									0	0
Sozietate publikoak	15	5.662	59	20.705	37	8.361	2	102	113	34.830
Fundazioak	0	0	0	0	2	1.180	0	0	2	1.180
Partzuergoak	0	0	3	232	3	213	0	0	6	445
Menpeko erakundeak eta partzuergoak, guztira	18	10.346	68	22.799	44	9.813	2	102	132	43.060
Toki-sektore publikoa, guztira	327	76.813	243	517.658	140	54.682	19	555	729	649.708

2023an, toki-entitateek, haien menpeko enteek eta partzuergoek, guztira, 729 kontratu esleitu zituzten, eta horien esleipenaren guztizko zenbatekoa 649,71 milioikoa izan zen.

2023ko ekitaldian, udaletan eta mankomunitateetan kontzentratzen da kontratazio-jarduera. Hala ere, azterketa orokorrari eragiten dio Iruñerriko Mankomunitatearen (IM, aurrerantzean) garraio publikoko zerbitzu-kontratu baten esleipenak. Kontratu hori prozedura irekiaren bidez lizitatu zen, 460,89 milioiko zenbatekoarekin, hau da, esleitutako zenbateko osoaren ehuneko 71. Kontratu hori alde batera uzten badugu, kontratazio-jarduera udaletan eta sozietate publikoetan gertatzen da gehienbat, aurreko ekitaldietan bezala.

Kontratu hori alde batera utzita, udalek kontratuen ehuneko 71 kontzentratzen dute, hau da, esleitutako zenbatekoaren ehuneko 71; sozietate publikoek, berriz, kontratuen ehuneko 16 eta zenbatekoaren ehuneko 18 hartzen dute. Udalek esleitutako kontratuen artean, ehuneko 53 obra-kontratuei dagokie, aurreko ekitaldietan ikusitako joerari eutsiz.

Hurrengo taulan, kontratu mota bakoitzerako kontratu kopurua, zenbatekoa eta esleipen-prozedura aurkezten dira.

(milakoak)

	Irekia		Negoziatua		Negoziatua, lizitazio-deialdirik gabekoa		Prozedura sinplifikatua		Murriztua		Esparru-akordioan oinarritua		Prozedura-rik gabe ¹⁷		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Obrak	210	66.457	1	157	5	662	98	7.970	2	424	1	639	10	505	327	76.813
Zerbitzuak	183	509.471	2	24	30	7.312	27	835	-	-	-	-	1	17	243	517.658
Hornidura	93	16.002	-	-	15	37.417	30	1.089	-	-	1	37	1	137	140	54.682
Zerbitzu-emakidak	18	546	-	-	1	9	-	-	-	-	-	-	-	-	19	555
	50	592.475	3	181	51	45.400	155	9.894	2	424	2	676	12	659	729	649.708

Aipatutako IMren kontratuak eta Iruñeko Udalak esleitutako energia-hornidurako lau kontratuak (36,47 milioi guztira) aurreko ekitaldiarekiko konparazioa baldintzatzen dute. Azterketatik kanpo utziz gero, hau da emaitza:

- Obra- eta zerbitzu-kontratuak gailentzen dira, zeinek esleitu den guztizko zenbatekoaren ehuneko 50 eta 37 egiten baitute, hurrenez hurren.
- Kontratazio-prozeduretatik gehien erabili dena irekia da, aplikatu da esleitutako kontratuen ehuneko 69an, zeinek guztizko zenbateko esleituaren ehuneko 86 egiten baitute. Ondoren, prozedura sinplifikatua dago, kontratuen ehuneko 21ean eta guztizko zenbateko esleituaren ehuneko seian erabilia.
- Zifra horiek 2022koen eta 2021ekoen antzekoak dira.

Kontratazioa kontratu gutxi batzuetan kontzentratzen da, taula honetan ikus daitekeen bezala:

(milakoak)

	Obrak		Zerbitzuak		Hornidurak		Zerbitzu-emakidak.		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
> 600.000 €	25	34.497	17	503.232	10	43.645	-	-	52	581.374
> 400.000 € eta <= 600.000 €	17	8.559	2	1.006	3	1.699	-	-	22	11.264
>150.000 eta <= 400.000 €	69	17.356	25	5.719	17	3.888	1	258	112	27.221
< 150.000 €	216	16.401	199	7.702	110	5.450	18	297	543	29.850
	327	76.813	243	517.658	140	54.682	19	555	729	649.708

600.000 eurotik gorako esleitze-zenbatekoa duten kontratuak 52 dira, eta esleitze-zenbatekoen ehuneko 89 dira.

Kontratu-erregistroko informazioaren arabera, esleipenek gora egin dute ehuneko zazpi 2022koekiko, eta zenbateko esleituak, berriz, ehuneko 345.

¹⁷ Kontratu-erregistroan izen horrekin katalogatuak. Larrialdiko izapidetzea izan duten kontratuei dagozkie.

VIII. KONTU-EMATEA ETA AURREKONTUEN ONESPENA

VIII.1 KONTUAK EMATEKO BETEBEHARRA BETETZEA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak dioenez, toki-entitateko lehendakariak martxoaren 31 baino lehen onetsi behar du toki-entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontu-likidazioa. Toki-entitatearen kontu orokorrari dagokionez, udaleko osoko bilkurari aurkeztu behar zaio, halako moldez non hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi ahal izanen baitu. Toki-entitateek bi dokumentu horiek onetsi ondoko 15 eguneko epean igorri behar dizkiote NFKAri.

Beheko taulan xehetasunez azaltzen da, TAKEDTren datuak oinarri harturik¹⁸, 2023ko ekitaldiko kontu orokorrak onetsi eta emateko epean betetzea:

(Toki-entitateen portzentajea)

Entitate-mota	Epean onetsia		Epean igorria		X+1.12.31ra arte igorria	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Udalak	65	64	56	27	70	67
Kontzejuak	60	56	47	22	61	56
Mankomunitateak	58	48	52	15	61	48
Elkartzeak	41	55	27	18	68	36
Guztira	61	58	50	23¹⁹	65	59

Toki-entitateen ehuneko 58k epean onetsi zituen 2023ko beren kontuak, eta ehuneko 23k legezko gehieneko epearen barruan igorri zizkion NFKAri.

Txosten honen datara arte, toki-entitateen ehuneko 82k bidali dizkiote NFKAri 2023ko beren kontuak. Portzentaje hori ehuneko 87ra igoko litzateke baldin eta kontu orokorra ez baina aurrekontu-likidazioaren espedientea bai igorri duten erakundeak gehituko bagenitu.

Txosten hau egin den garaian, honako toki-entitate hauek ez diote NFKAri igorri 2022ko eta 2023ko ekitaldietako ez kontu orokorrik ez eta aurrekontu-likidazioaren espedienterik ere: Kasu bakoitzean, parentesi artean adierazi da aurkeztu duten azken kontu orokorrari edo aurrekontu-likidazioari dagokion ekitaldia.

- Sei udal: Aburrepea (2021), El Busto (2020), Ezkurra (2021), Saldias (2021), San Martín Unx (2021), Zugarramurdi (2021).

- 32 kontzeju guztira: Allotz (2020), Aranguren (1990), Argiñao (2020), Artabia (2021), Artazkotz (2021), Asterain (2020), Azantza (2020), Biotzari (2021), Zizur Txikia (2017), Eraul (2021), Eultz (2020), Galdio (2019), Gazolatz (2017), Iruñela (2020), Iturgoien (2017), Labiano (1990), Lakar (2020), Larraintzar (2020), Larraia (2017), Larraiotz (2016), Larrion (2020), Lorka (2021), Muneta (2021), Murugarren (2017), Paternain (2015), Getze Ibargoiti (2020), Taxoare (1990), Torres (2020), Undio (2015), Zolina (1990), Zubieli (2020), Zurukuain (2019).

- Bost mankomunitate guztira: Aberin-Arellano-Morentingo Langileriaren Mankomunitatea (2021), Malerreka Zerbitzu Orokorraren Mankomunitatea (2021), Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea (2018), Liburutegi Zerbitzuen Berragu Mankomunitatea eta Orreaga Kirol Mankomunitatea. Ez da inon agertzen azken bi horiek NFKAri kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioaren espedientea inoiz igorri izana.

- Elkartzeak: Faltzes eta Miranda Arga udalerrien Administrazio Zerbitzuen Elkartzea (2017).

Oro har, toki-entitateek beren kontuak onetsi eta NFKAri igortzen dizkiote, baina askotan legezko epeekiko berandutze nabarmenekin. Horren ondorioz, informazioa ez da bere tenorean iristen eta, beraz, munta galtzen du. Ildo horretan, gaur egun toki-entitateari diru-atxikipen bat aplikatzen zaio kontabilitate-informazioa ez igortzeagatik. Diru-atxikipen hori araudian jasota dago, eta banaketaren aurreko bigarren urteko TAFEan dagokion zenbatekoaren ehuneko hamarrekoa da.

Dena den, neurri hori aplikatzen zaie ez kontu orokorrik ez 2023ko aurrekontu-likidaziorik aurkezten ez duten toki-entitateei bakarrik.

¹⁸ Toki Administrazioiko Kontabilitate Espedienteetako Datuen Trukea.

¹⁹2023an, epe barruan onetsitakoak baino ez ditugu kontuan hartu.

Honako taula honek erakusten ditu TAFEan aplikaturiko atxikipenak:

Eguna	Entitate-kopurua	(milakoak)	
		Atxikitako zenbategia	
2025eko 1. ordainketaren atxikipena	191	879	
2025eko 2. ordainketaren atxikipena	96	193	
2025eko atxikipena, guztira, 2023ko espedienteak ez igortzeagatik	191	1.072	
Txostena egin den garaian eginkizun egondako atxikipena	96	368	

VIII.2. AURREKONTUAREN ONESPENA ETA IGORPENEA

TOFLak xedatzen du ezen udalaren osoko bilkurak aurrekontu orokorraren behin betiko onespena eginen duela hura aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago, eta NFKAri igorri behar zaiola onespene horren ondorengo 15 egunen barrenean.

Beheko taulan xehetasunez azaltzen da, TAKEDTaren datuak oinarri harturik, 2023ko ekitaldiko aurrekontuak onesteko eta NFKAri igortzeko epeen xehetasuna.

Entitate-mota	(Toki-entitateen portzentajea)					
	Epean onetsia		Epean igorria		X+1-03-31rako igorria	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Udalak	34	30	4	4	34	37
Kontzejuak	14	10	3	1	14	14
Mankomunitateak	31	31	5	6	32	37
Elkartzeak	5	9	-	-	36	23
Guztira	23	20	3	3	24	25

Beren aurrekontua epe barrenean onetsi dutenak toki-entitateen ehuneko 20 bakarrik dira. Gainera, deigarriak dira NFKAri informazioa bidaltzean izandako atzerapenak, zeinak atzerapen askoz handiagoak baitira aurrekontu-likidazioek eta kontu orokorrekin pairatzen dituztenak baino.

Dena den, txosten hau egin den garaian, toki-entitateen ehuneko 77k igorriak zizkieten NFKAri 2023ko aurrekontu-espedienteak.

IX. BARNE-KONTROLA ETA KONTU-HARTZE ORGANOEK JAULKITAKO ERAGOZPEN-OHARRAK

IX.1 ESKATUTAKO INFORMAZIOA IGORTZEKO BETEBEHARRA BETETZEA

Atal honetako informazioaren oinarri gisa hartu dira Kontuen Ganbera honek udal, mankomunitate eta elkarteetako kontu-hartze organoei 2023ko ekainean bidalitako galdetegiari emandako erantzunak. Galdetegi horretan informazioa eskatzen zen 2022an eginiko barne-kontrolari buruz. Kontzejuak ez zitzaizkien bidali formulario hori, ez daukatelako barne-kontrolerik eginkizunetan aritzeko gaituta dagoen kontu-hartzailetzako edo idazkaritzako langilerik.

Galdetegia 353 toki-entitateri bidali zitzaizkien, eta 289 erantzun jaso ziren; halatan, betetze-maila ehuneko 82koa da, aurreko ekitaldikoaren antzekoa. Erantzun ez zuten entitateen artean, biztanleria aldetik Uharteko Udala nabarmentzen da.

IX.2 BARNE-KONTROLA

Arauetan barne-kontrolerik hiru modalitate bereizten dira: kontu-hartze funtzioa, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola.

Beheko taulan azaltzen dira toki-entitateek kontu-hartze funtzioaren alorrean eginiko kontrolak zer motatakoak diren:

(Toki-entitate kopurua)

Toki-entitate mota	Erantzunak, guztira		Ordainketa- ren kontu- hartze for- mala		Ordainketa- ren kontu- hartze mate- rialia		Inbertsioen egiaztapenak		Dirulagun- tzen egiazta- penak	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Udalak	233	228	210	203	207	209	192	190	211	213
1.000 biztanle bitarte	160	154	142	136	136	140	137	134	145	145
1.001 biztanletik 5.000 biztanle bitarte	54	56	50	51	52	54	45	46	51	53
5.001 biztanletik 10.000 biztanle bitarte	7	7	6	6	7	6	3	4	6	6
10.001 biztanletik 20.000 biztanle bitarte	8	7	8	7	8	7	6	5	7	7
20.000 biztanle baino gehiago	4	4	4	3	4	2	1	1	2	2
Mankomunitateak eta elkartzak	56	58	49	47	51	50	50	48	49	50
Guztira	289	286	259	250	258	259	242	238	260	263
Erantzun guztien gaineko %			90	87	89	91	84	83	90	92

Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzeko abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak toki-entitate guztiengana hedatu zuen osoko bilkurak aurretiazko fiskalizazioaren norainokoa mugatzeko ahalmena, lehendakariak proposatuta eta kontu-hartze organoak aurretiazko txostena eginda. Horrek kudeaketaren azkartasun handiagoa ahalbidetzen du. Neurri horrek ez ditzan kaltetu barne-kontrolak ematen dituen bermeak, kasuko betebeharrak edo gastuak erabat fiskalizatu behar dira ondoren, laginketa- edo auditoretza-tekniken bidez. TAFLn erreforma hori 2021eko ekitaldian sartu zen indarrean. Jasotako informazioaren arabera, osoko bilkurak erabaki du araubide hori 22 toki-entitatetan apilikatzea, baita Iruñeko Udalean ere, zeinak jadanik aplikatu egiten baitzuen.

TAFLk araututakoak diren barne-kontrol ekonomiko-finantziarioko beste bi modalitateei dagokienez, gaiari buruz informatu duten 228 toki-entitateetatik ehuneko 35ek eta 30ek adierazi dute, hurrenez hurren, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola egiten dutela. Legez ezarritakoak diren barne-kontrolako hiru modalitateak baliatzen ez dituzten toki-entitateen artean, duten biztanleriagatik Iruñeko eta Tuterako udalak nabarmentzen dira

Oro har, kontu-hartze funtzioa bete egiten da, eta araudiak eskatutako edukia du. Finantza-kontrolako eta eraginkortasun-kontrolako funtzioak, berriz, gutxiago ezarrita daude. Egoera horren arrazoietako bat da Nafarroan funtzio horiek gutxi araututa egotea, gai hori ez baita erregelamenduz garatu, Estatuan gertatuaz bestela, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua aplikatzen baita, toki-sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa ezartzen duena.

Igorritako galdetegiaren ehuneko 62k agerian jartzen dute kontu-hartzaitza organoetan baliabiderik eza dagoela. Zehazki, honako hauek aipatu behar dira:

- Barne-kontrolako zereginetan diharduten langileek berariazko prestakuntzarik ez izatea; baitz ere, "idazkari/kontu-hartzaile" diharduenak.
- Kontrol-organok langilerik eta denborarik ez izatea esleituta dituen eginkizun guztiak aurrera eramateko; gainera, eginkizun horiek zenbait toki-entitatetan betetzen ditu.

IX.3 ERAGOZPEN-OHARRAK

Informazioa eskaini duten 267 toki-entitateetatik, eragozpen-oharrak 30 udaletan egin dira. Horrek ehuneko 11 egiten du; hots, aurreko ekitaldiko portzentajearen antzekoa. Kontu-hartzailetzako organoek 147 eragozpen-ohar eman dituzte, 12,66 milioi euroko gastuari eragiten diotenak, taula honetan ikus daitekeenez:

Toki-entitate mota	Entitate kop.		Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik ez	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Udalak	28	30	181	144	6.163.809	12.363.684	15	7
1.000 biztanle bitarte	8	9	15	13	105.576	132.753	3	2
1.001-5.000 biztanle	11	12	53	68	722.113	4.569.396	4	4
5.001-10.000 biztanle	3	3	35	15	1.072.066	948.891	4	-
10.001-20.000 biztanle	4	3	23	28	1.577.054	4.176.411	0	-
20.000 bizt. baino gehiago	2	3	55	20	2.687.000	2.536.233	4	1
Mankomunitateak eta elkartzak	2	3	7	3	983.614	293.886	0	0
Guztira	30	33	188	147	7.147.423	12.657.570	15	7

Honako taula hauetan xehakatu dira eragozpen-oharrek ukitutako kudeaketa-arloak eta eragozpen-oharren arrazoiak:

Kudeaketa-arloa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik gabe	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Kontratazioa	141	71	5.532.258	6.396.785	6	2
Langileak	12	22	57.171	245.205	5	3
Dirulaguntzak	17	5	149.938	96.280	1	-
Beste batzuk / Zehaztu gabe	18	49	1.408.057	5.919.301	3	2
Guztira	188	147	7.147.424	12.657.571	15	7

Arau-haustea/erag. oh. arrazoa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik gabe	
	2022	2023	2022	2023	2022	2023
Kreditu nahikorik eza	22	22	900.653	4.459.859	3	1
Kreditu ezegokia	2	12	7.087	188.800	-	2
Fiskalizaziorik eza	5	5	130.160	192.872	-	-
Egiaztagirietan irregulartasunak egotea	11	9	22.390	85.575	-	-
Funtsezko betekizun edo izapiderik ez	114	84	4.535.127	7.650.015	6	3
Obra, hornidura, erosketa eta zerbitzuen egiaztapen materiala	3	-	3.042	-	-	-
Ordenamendu juridikoaren aurkako beste ekintza batzuk	24	15	288.856	80.449	5	1
Gastua onesteko eskumenik gabeko organoa	7	-	1.260.108	-	1	-
Guztira	188	147	7.147.423	12.657.570	15	7

Kontratazio publikoaren arloan biltzen dira eragozpen-oharren ehuneko 48 eta ukitutako zenbatekoaren ehuneko 51. Bestalde, eragozpen-oharren arrazoi ohikoenak dira funtsezko betekizunak edo izapideak falta izatea (ehuneko 57) eta aurrekontu-kreditu nahikorik ez egotea eta ordenamendu juridikoaren aurkako beste ekintza batzuk (ehuneko 15 eta ehuneko 10, hurrenez hurren).

Hurrengo taulan, azkenik, ukitutako zenbatekoaren arabera sailkatu ditugu 2023ko eragozpen-ohar-
rrak:

(eurotan)		
Diru-zenbatekoaren tartea	Eragozpen-oharren kopurua	Zenbatetsi den diru kopurua, guztira
1.000 euro bitarte	26	10.970
1.001-5.000 euro	32	87.194
5.001-10.000 euro	12	77.638
10.001-20.000 euro	24	382.580
20.000 eurotik gora	47	12.099.188
Zenbatekorik ez da agertzen	6	-
Guztira	147	12.657.570

(Euroak)

Azkenik azpimarratzen dugu ezen, emandako informazioaren arabera, 13 toki-entitatetan lehendakariak 57 ebazpen onetsi dituela kontrol-organoek eginiko eragozpen-oharren aurka.

IX.4 DIRU-SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK

Bederatzi toki-entitatek diru-sarrerren arloko 13 anomaliaren berri eman dute; horietatik zazpik guztira 225.629 euro ukitzen dituzte. Horietako bi zuzendu dira.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2026ko otsailaren 4an

Nafarroako Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

I. ERANSKINA. TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Hona hemen Nafarroako toki-entitateei 2023an aplikatu beharreko arau nagusiak:

2023an Nafarroako toki-sektore publikoan aplikatzekoak diren arau nagusiak

a) Toki-administrazio eta -araubidea

- Espainiako Konstituzioa.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektorre publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektorre publikoak bitarteko elektronikoan bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onesten duena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarakoa.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, Toki Administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1990eko uztailaren 17ko Ministro Aginduaren bidez onartua, irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorren 425. arauan xedatutakoaren arabera aplikatzekoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki-ogasunei buruzkoa.
- 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea onesten dituena.
- 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa.
- 8/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Toki Inbertsioen Plana arautzen duena.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, eta 272/1998 eta 273/1998 Foru Dekretuak, irailaren 21ekoak, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa, aurrekontu-egiturari buruzkoa, eta Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra eta Kontabilitate Erraztua onestekoak, hurrenez hurren.

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzkoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektorre publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, honako hauek aldatzekoa: Autonomia-erkidegoak Finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, neurriak ezartzen dituena merkataritza-eragiketarako bebankortasunaren aurka.

- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzekoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunerakoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako eta finantza-arazoak dituzten toki-entitateei laguntzeko premiazko neurri buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen finantza-jasangarritasunerako neurri eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzkoa.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan informazioa emateko aurreikusitako betebeharrak garatzeko.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzeko zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.
- 7/2021 Ebazpena, urtarrilaren 28koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako toki-entitateek izenpetzen dituzten kreditu-eragiketek bete behar dituzten zuhurtasun finantzarioko baldintzak, bai eta xedetzat aktibo finantzarioak edo haiek emandako abalen edo bestelako berme publikoen ematea daukaten finantza-eragiketak ere.

d) Kontratazio administratiboa

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu publikoei buruzkoa (2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuen egunean administrazio-klausula partikularren edo arautze-baldintzen pleguak jadanik onetsita zeuzkaten kontratuetarako).
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.

e) Langileak

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzkoa.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onesten duena.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Poliziei buruzkoa.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoetan zerbitzuko Langileen Estatutuaren testuategina onesten duena, bai eta hura garatzeko xedepanak ere.
- 158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoetan zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamendua onesten duena.
- 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua onesten duena.
- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena.
- 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.

f) Dirulaguntzak

- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.

g) Hirigintza, ingurumena, energia eta beste arlo batzuk

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.
- 7/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, Nafarroako turismoari buruzkoa.
- 8/2005 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzkoa.
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzkoa.
- 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.
- 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 48/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira oinarrizko gizarte zerbitzuen oinarrizko programak eta finantzaketa-sistema.

h) Europako 'Next generation' funtsak

- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituena Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko.
- 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira, Suspertzerako Europako Bitartekotik heltzen diren Europako funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta toki-sektore publikoko erakundeek, segimendua egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugarri eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaietako neurrien aurrekontu-eta kontabilitate-exekuzioaz.

h) Toki-entitate bakoitzaren araudi berekia

- Toki-entitateen 2023rako aurrekontuen exekuzio-oinarriak.
- Tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.
- Berriazko hitzarmen kolektiboak.

